

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELORRIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Mugaketako administrazio espedientea

Jakinarazten da, Elorriagako Kontzejuaren Auzo Batzarrak 2026ko uztailaren 28an egindako bileran hartutako erabakiaren bidez, Vitoria-Gasteizko 4. zenbakiko jabetza erregistroan inskribatutako finkaren mugaketa onetsi zela (4900 liburukia, 1464 liburua, 211 folioa, 2/49870 finka, A katastro azpilurzatia, 6 lurzatia, 20 poligonoa, Arkautin dagoena, Vitoria-Gasteizko udalerrria, Araba, kontzejuarena), jabetza pribatuko 4093 liburukia, 657 liburua, 195 folioa, 2/27430 finkari dagokionez, egin den moduan eta mugaketa aktan eta espedientean agertzen diren eskalako planoetan zehazten den bezala.

Mugaketari buruzko aurreko erabaki ebazlea betearazlea da, eta haren aurrean, eta 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Toki Erakundearen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 65. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu Vitoria-Gasteizko Auzialdiko Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Sekzioan; horretarako, bi hilabete izango dira jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Nolanahi ere, beren eskubideak urratu direla uste dutenek jurisdikzio arrunta ere baliatu ahal izango dute.

Elorriaga, 2026ko uztailaren 30a

Errejidore-lehendakaria

JESÚS MANUEL VÁZQUEZ EXPÓSITO